

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak parke eoliko berrietarako baimena emateko prozedura eguneratu eta erraztuko du

*Bere Helburua hauen ezarpena bultzatzea da, energia berriztagarrien ekoizpenean Nafarroa abangoardian jartzeko*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 20

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onetsi du akordio bat zeinaren bidez, parke eoliko berrien ezarpena erregulatzen duen Foru Dekretu baten proiektua kontuan hartuko da. Ondoren, testua Nafarroako Kontseiluari bidaliko zaio, honek bere nahitaezko txostena igor dezan.

Proiektu honen helburuak ondorengoak dira: Nafarroa energia berriztagarrien ekoizpenean abangoardian jartzeko, bertan parke eoliko berriak bultzatu; prozedura administratiboak erraztu, eta sustatzailei segurtasun juridiko handiagoa eskaini.

Halaber, dekretuak Foru Komunitatean dauden parke eolikoaren jabeek bete behar dituzten izapide administratiboaren araudi berria aginduko du. Testuak ezartzen duen prozedurak, Sektore elektrikoaren zein ingurumen eta hiri-araudi berriko 24/2013rekin gehiago bat egiten du segurtatzeko, prozesuaren funtzionaltasuna, izapideen errazpena eta instalazio mota hauek bultzatzen dituzten segurtasun juridikoa.

Dekretuak, esaterako, parke eolikoaren kontzeptuak eta honen berrikuntza zehaztuko ditu. Gainera, sareetara sartzeko prozesuaren gardentasun sistema eratuko da, eta instalazioen baimen administratiboaren prozedura zein parke eolikoaren ikuskapen erregimena ere erregulatuko dira.